

## Zer egin dugu hau merezitzeko

*Euskaldunon Egunkaria*, 1994-04-13: 2.

Nazioa, gizateriaren berezko familia naturala da. Ez du gizakiak jaioterria aukeratzetik izan, ezta bere gurasoak ere. Azareko bide honetatik datoz. Zergatik honela eta ez bestela? Auskalo. Batek daki zergatik sortu den Euskal Herria munduko lurralde eta itsasbater honetan. Zergatik batzuk Poloetako izotzetan, besteak Tropiko beroetan, batzuk Saharako basamortuan. Zergatik diren batzuk beltzak, besteak horiak, "azal gorriak" eta zuriak? Zergatik etorri zaigun etniaren arabera bakoitzari burmuinetatik komunikatzeko hizkuntza berezia: guk "mendi" esanez bereizten duguna, alboan bizi diren beste batzuk "monte", "montagne", "mountain" ahoskatuta ulertzen duten gauza bera. Milaka urteko bilakabidean!. Ez gara definizio soil eta ximple hauetan geratuko, zeren eta jakina da naturaz azarean datozenek badituztela gero bereziak diren jarraimen espirituala eta kulturala ere. Hizkuntzaren kasuan oinarritzko egitura hau eragin sozio-kulturalak aldatzen du; badira hainbat grekera eta latinaren eragin politikoaren bitartez aldatu dituztenak: espainola, frantsesa, katalana, portuguesaren eta gailegoaren kasuak ditugu gertuen, eta eragin honek askotan politikazko bide hori biolentzia eta gerraz egindako hilketa eta zanpaketa administratiboaren eta eskolaren biolentzia medio gertatu da. Historia luzea jasan dugu euskaldunok! Hau dena, gizona basatia eta gerloso zenaren atxakiaz. Baina gaur Gizakiaren eta Herrien Eskubideak aitortzen diren beste honetan, zer egin dugu nazio eta hizkuntza minorizatuek Europa Batu eta zibilizatuan tratu hau merezitzeko!?